


## Atxorrotzeko gaztelua / Castillo de Atxorrotz

**Eskoriatzako Atxorrotz (gailur malkartsua) Bolibar elizatean dago kokatua, Gipuzkoa eta Araba arteko mugan.**

**Aizkorri Aratz Parke Naturalaren iparraldeko muga inguruko lur eremu txikia da, hala eta guztiz ere, hain txikia izateko, natur aberastasun izugarria du, paisaia aniztasun handia dago eta ekosistema ugari egoera onean kontserbatu direlako. Biodibertsitatearen kontserbaziorako eremu oso interesgarria da, naturaltasun altua duelako eta bertan ageri diren animalia eta landare babestuak asko direlako. Kontserbazio aktiboko zonatzat har daiteke, Natur Baliabideak Antolatzeko Planak (NBAP) azaldutakoaren arabera.**

**Biodibertsitatea eta paisaiaz gain, ondasun historiko arkeologikoak dira nabarmen aipatzekoak. Erdi Aroan Gipuzkoako gotorlekurik garrantzitsuena izatera iritsi zela adierazten dute azkenaldian egindako indusketek. Horiek gutxi balira, Atxorrotzeko puntan ermita txiki bat dago.**

Atxorrotz se encuentra situada en la anteiglesia de Bolibar de Eskoriatza, en la frontera entre Gipuzkoa y Araba.

Es un territorio pequeño en el límite norte del Parque Natural de Aizkorri Aratz, pero a pesar de su reducida dimensión, al haberse conservado en un buen estado, tiene una gran riqueza natural, una gran diversidad paisajística y varios ecosistemas. Es una zona muy interesante desde el punto de vista de la conservación de la biodiversidad, al ser de una gran naturalidad y ser numerosas las especies protegidas animales y vegetales allí presentes. Según lo establecido en el Plan para la Organización de los Recursos Naturales, se puede considerar como una zona activa de conservación.

Además de la biodiversidad y el paisaje, es de mencionar especialmente su patrimonio histórico-arqueológico. Las excavaciones realizadas últimamente señalan que llegó a ser uno de los castillos más importantes de Gipuzkoa en la Edad Media.

Y si todo ello fuera poco, en la cima de Atxorrotz hay una ermita.